

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

246/2019 Foru Agindua, Ingurumen eta Hirigintzako diputatuarena, irailaren 25ekoa, Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren (BIPB) aldaketako ingurumen txosten estrategikoa ezartzen duena

“Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren (BIPB) aldaketa” izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak BIPBren aldaketa horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Kanpezuko Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukari jarraitzen diona, bai eta hirigintza agiria ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko irailaren 17an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (18/71 espedientea).

1. BIPBren aldaketaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. BIPBren aldaketaren ezaugarrien laburpena:

BIPBren eguneraketaren barruan sartzen da 2000ko urtarrilaren 13ko Aginduaren bidez Birgaitze Integratua kategorian aitortutako gunearen hirigintza, eraikuntza eta urbanizazio mailako antolamendua. Agindu hori 2000ko urtarrilaren 28ko EHAA (19. zenbakia) argitaratu zen, eta Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoari buruzkoa da.

Santikurutze Kanpezuko BIPB indarrean jarri zenetik 20 urte baino gehiago igaro direnean, beharrezkotzat jo da hura eguneratzea. Horretarako, honako helburu zehatz hauek ezarri dira:

- a) Santikurutze Kanpezuko harresia berraztertzea: sozializatu eta balioa ematea.
- b) Herrigune historikoaren irudia hobetzen dela ziurtatzea, inguruko hiri bilbetik.
- c) Dauden balore paisajistikoak babesteko neurriak ezartzea: herriguneak kanpotik eskaintzen dituen ikuspegiak, fatxadak eta hiri profilak.
- d) Hiri espazio, eraikin eta gainerako elementu esanguratsuen balore historiko eta formalak babestu eta nabarmentzea, katalogazio zehatzaren bidez.
- e) Oin berriko eraikuntzek eta katalogatu gabeko eraikinen ordezkapenek bete behar dituzten baldintzak ezartzea.
- f) Bereziki zaintzea dauden espazio libreak (bideak, plazak, eta abar) edo hobetzeko aukera dutenak berreskuratu eta era egokian tratatzen direla, berrantolaketaren bidez.
- g) Bideen egitura antolatzea, irisgarritasuna bermatze aldera.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Aldaketaren eremu geografikoa Santikurutze Kanpezuko Erdi Aroko herrigunearen Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren barruan dago. Eremu horren barruan sartzen dira jatorrizko hiribil-duko harresiaren barruko edo ondoko eraikuntza guneak, eta, horrez gain, harresiz inguratutako esparruaren ekialdean dauden Aldiri Historikoetako gune finkatuak (Arrabal kalea eta Samuel de Picaza plazaren ekialdeko aurrealdea) jasotzen ditu.

BIPB aldatu edo/eta eguneratzeko agirian, Birgaitze Integratuko Gunean onartutako muga bete da, baina zertxobait aldatu da Samuel de Picaza plazara sartzeko muga, bertarako sarbidea zabalagoa izan dadin hegoaldeko sarbidean eta errepideko sarbideetako batean. Hartara, Kultur Etxearen inguruan esku hartzea eta ortuen inguruan oinezkoen pasealeku bat jartzea errazagoa izango da. 59.435,32 m²-ko azalera dauka, eta haren mugek bat egiten dute indarreko BIPBn ezarritakoekin.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan ondorioztatu daitekeenez, bi aukera nagusi aztertu dira, nahiz eta horietako batek BIPB eguneratu edo/eta aldatzeko hainbat proposamen jasotzen dituen:

– “0” aukera edo ez esku hartzeko aukera (ez da hautatu): Horren arabera, ez litzateke jarduerarik egingo, eta, beraz, egungo egoerarekin jarraituko litzateke, hau da, indarreko BIPBekin jarraituko litzateke. Hortaz, eraikuntzako jarduerak ez lirateke koordinatuko indarreko sektore araudi berrian (abenduarien 30eko 317/2002 Dekretuan) aurreikusitako horiekin, eta ez litzateke eguneratuko urte hauetan zehar era askotako esku hartzeak jasan dituzten eraikuntza unitateen katalogoa. Halaber, ez litzateke baliorik emango harresiari eta haren hondar arkeologikoei, azken urteetan egindako azterketak kontuan hartuta.

– “1” aukera (hautatua): Aukera honetan BIPB eguneratu edo/eta aldatzeko hainbat proposamen jasotzen dira:

- Birgaitze Integratuko Gunearen mugaketa (3 proposamen):

1. HAPOn proposatutako mugaketa aldatzea iradokitzen du. HAPOk, izan ere, eremuaren zati bat, zehazki Debajo de Las Casas kalea, BIPBren jarduera eremutik kanpo uzten zuen. Debajo de Las Casas kalea berreskuratzeko proposatzen da, beste antolamendu bat sor dadin BIPBren mugan. Halaber, sarbide berri bat sortzeko proposatzen da, El Potro eta De la Villatik Debajo de Las Casas kalerainoko oinezkoen joan-etorria errazteko, HAPOn proposamenei eutsiz eta BIPBren mugaketa bere horretan utzita. Azken hori bat dator 2000ko urtarrilaren 13ko Aginduan (2000ko urtarrilaren 28ko EHAA, 19. zenbakia.) onartutako Birgaitze Integratuko Gunearekin.

2. Aldaketa horrek Samuel de Picaza plazarako sarbideari eragiten dio, bertara sartzeko errazagoa izan dadin.

3. Hirugarren proposamenak, A-132 errepidearekin batzen den eremuaren iparraldean, gune bat zabaltzea proposatzen du, Kultur Etxearen aurreko hiri espazioa eta ortuen inguruan egon daitekeen oinezkoen pasabidea konektatuko dituen bide publiko bat sartzeko.

- Hiri bilbearen gaineko jarduerak (3 jarduera nagusi):

– Hiri egiturarako proposamena:

- Harresiaren trazadurak jarraituko du atxikitako lursailen fondo eraikigarriaren lerrokadura izaten. Gainera, ondoko espazio libreak errekuperatzeko proposatzen da.

- Etxadietan dauden kanpoko lerrokadurei eustea proposatzen da, eraikuntza edo eranskin itsugarriak ezabatuta.

- Eraikuntza berriak jartzea proposatzen da; gehienak orube hutsetan kokatzen dira, eta beren dimentsio txikien eta forma geometrikoaren ondorioz, garatzeko zailak dira.

- Eraikuntza tipologiari buruzko proposamenak (hertsiki hirigintzakoak).
- Eraikuntzaren erabilerei buruzko proposamena (hertsiki hirigintzakoak):
- Guneko Erabilera Orokor gisa Egoitza Erabilera zehaztea.
- UAI 1 - UAI 2 Hiri bilbea finkatzea:
- UED 1 Hiri bilbea finkatzea eta ondare arkeologikoari balioa ematea:
- UED 2 Hiri espazio publikoa:
- UED 3 Oinezkoen konexioa:
- UED 4 Samuel Picaza plazarako sarbidea:
- UED 5 "Kultur Etxea" ekipamendua handitzea:
- UED 6 Oinezkoen pasealekua ortuen inguruan:
- UED 7 Kanpoko aparkalekua - Autobus geltokia:
- Espazio Libreen eta Bide Sarearen gaineko jarduerak:

BIPBren eguneraketak espazio libreen sailkapenari eusten dio, harresiarekin lotuta duten egoeraren arabera, horietako bakoitza zehaztu eta deskribatuz. Era berean, eguneraketan hainbat proposamen oso zehatz ezartzen dira, ingurumenean garrantzirik ez dutenak, egonaldi espazioetarako, norabide espazioetarako, bideetarako eta harresi gaineko pasabiderako.

- Eraikuntzen eta Hiri Espazioen Balioaren gaineko jarduerak:

Egungo BIPBren katalogazioa aldatu egin da, eraikuntzen balio historiko eta arkitektonikoaren azterketa sakonagoa kontuan hartuta.

- Erkidegoko Ekipamendu Sistemaren gaineko jarduerak:

Ekipamendu orokorrerako orube bat eskuratzeko proposamena baino ez da ezartzen. Hartara, gazteluaren hondarrei eutsi ahal izango zaie, kontrol arkeologikoetan agertzen badira, eta etorkizunean herriaren turismoa sustatuko duen erabilerarik sustatzen bada, hari lotu ahalko zaio.

- Hiri Zerbitzuen gaineko jarduerak:

Saneamendu, hornidura, argiteria publiko, energia elektriko, telefonia eta zoladura bezalako hiri zerbitzuen sareen egoerari buruzko diagnostikoa jasotzen da BIPBren eguneraketan. Horren arabera, hainbat antolamendu proposamen jasotzen dira, ingurumenean ondorio esanguratsurik eragiten ez dutenak.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko apirilaren 1ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak abian jarri zuen eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraiki. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	

Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Kanpezuko Udala	
Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra	
Kanpezu - Arabako mendialdeko kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/71 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena igorri du. Horren arabera, “Birgaitze Integratuko Plan Beregian Santikurutze Kanpezuko herrigunea jorratzen da, eta, beraz, ez dio eragiten lurzoru urbanizaezinari. Hortaz, ez dauka inolako eraginik nekazaritza eta abeltzaintzako jardueran. Horrez gain, ez du eraginik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan”

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi duenez, “memorian dagoeneko aipatzen da ondare arkeologikoa, beharrezkotzat jotzen da zundaketak edo indusketa arkeologikoak egitea eragina jasaten duten orubeetan, eta balantze bat egiten da 1995. urtetik orain arte hiribilduan egin diren jarduera arkeologikoen gainean”. Amaitzeko adierazten duenez, “Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera, Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoko zona arkeologikoko eremuari eragiten dion edozein obra edo lur mugimendu egiteko (1996ko apirilaren 12ko EHAA, 71. zenbakia), Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak igorritako txosten teknikoa beharko da”

- URA - Uraren Euskal Agentziak lehen txosten bat eman zuen 2019ko apirilaren 15ean. Bertan dioenez, eskaera Uraren Euskal Agentzian sartu da, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, dagokion txostena eman dezan.

URAK bigarren txosten bat igorri zuen 2019ko ekainaren 10ean. Bertan, hainbat iruzkin egin zituen zenbait alderdiren gainean; zehazki, jabari publiko hidraulikoaren eta haren babes guneen gainean, bai eta horniduraren eta saneamenduaren gainean ere. Honako hau ondorioztatu zen:

– “Hirigintza izapideetan zehar, dokumentazioarekin batera erantsi beharko da proposatutako garapenek baliabide hidrikoetan zer nolako eskaria sortuko duten.

– Era berean, hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeatzailearen txostena sartu beharko da, eskari eta karga berriak bermatzeko dauden azpiegiturak aski ote diren aztertzeko”

Azkenik, gogorarazi denez, “Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan ezarritakoa betez, txostena eskatu beharko zaio Uraren Euskal Agentzia honi, plan berezi hau hasieran onartu ondoren”

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zerbitzuak, BIPBren dokumentazioa aztertu eta ondarearen eta 7/1990 Legearen eraginaren balorazioa egin ondoren, honako hau ondorioztatu du:

“Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Berezia eguneratzeko agiria berrikusi egin behar da, honako zehaztapen lotesle eta gomendatzaile hauen arabera:

Lotesleak:

“Alto del Castillo inguruko lurpeari edo harresiarekin bat datorren 64 zenbakiko higiezinari eta haren lurpeari eragiten dion edozein esku hartze garatzeko, Arabako Foru Aldundiak aurre-
tiazko baimena eman beharko du ondare arkeologikoari erreparatuta. Horretarako, dagokion
proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko da. 64 zenbakiko higiezinaren kasuan, higiezinaren
altxaeren azterketa arkeologiko eta estratigrafikoa jaso beharko du azterketak. Interesgarritzat jo
da azterketa horiek bi guneetan egin daitezela, eta emaitzak ingurumen azterketarako baloratu
daitezela, BIPBren eguneraketa onartu baino lehen.

Gomendioak kontuan hartuta, honako hau eskatu da: udalerria babesteko proposamena du-
ten ondasunetarako edozein eraikuntza jarduera onargarritan esku hartzeko irizpideak Finkapen
edo/eta Zaintza eta Apaindura deitzen diren horiek izan behar dira, 317/2002 Dekretuaren I.
eranskinean zehazten diren eran. Era berean, adierazi denez, kontuan hartuta Katalogoa egune-
ratu egin daitekeela, azterketan antzeman ez diren elementuak egon daitezkeelako edo etorki-
zuneko sektore edo tokiko azterketetan erregistratu daitezkeen elementuak egon daitezkeelako,
halako kasuetan jokatzeko mekanismoren bat egotea aurreikusi da.

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen Zuzendaritzak, proposamenaren laburpena egin
ondoren, BIPB eguneratzeko helburu zehatzak adierazita, natura ondarearen gaineko eraginaren
azterketa egin du. Horren arabera, “nahiz eta Zuzendaritza hau bat datorren ingurumen agiria-
ren ondorio orokorrarekin, hau da, BIPBek ingurumenean eragin esanguratsuak sortzeko duen
gaitasuna ziur aski murrizta dela dioen ideiarekin, ezin da ahaztu eraikin zaharrek eta harresi
inguruek faunarentzat duten garrantzia, bereziki, gau harrapariarentzat eta kiropteroentzat, ziur
aski animalia horiek habiak edo/eta aterpeak izango baitituzte aztertzen ari garen eremuan”.
Horrenbestez, honako baldintza hauek sartzeko eskatu da:

Eraikinak birmoldatzean kiropteroak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– “Zura intsektizidez tratatzean, organokloratuak edo organofosforatuak dituzten produk-
tuen orde, erraz biodegradatzen diren produktuak erabili beharko dira.

– Kiropteroen hazlekurik aurkituz gero, hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at
teilaberritu eta eraberritu beharko dira eraikinak, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera
arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek barne) eman beharko dira”.

Eraikinak birmoldatzean gau harrapariak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– “Teknikari kualifikatuek aurretiazko azterketa bat egitea.

– Era horretako espezierik dagoela konturatuz gero (egragropiloak edo bestelako honda-
kinak ikusiz gero, gauez entzun zaielako bertan direla ziur egonez gero etab.), Arabako Foru
Aldundiari jakinaraziko zaio, kalterik ez eragiteko neurri egokienak adosteko (lanen kronograma
egokitzea edo beste)”.

Azkenik, adierazi denez, “oso balorazio positiboa egin da berdeguneetan landaretza autok-
tonoa erabiltzeko proposamenaren gainean”.

• IHOBE - Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoak adierazi duenez, “organo honetan
ez da agertzen leku horietan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin denik eta, beraz, ez dira
sartzen lurzorua kutsa dezaketan jarduera edo instalazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten
lurzoruen inbentarioan”. Azkenik, adierazitakoari jarraiki, “kutsadura zantzuak antzematen badira,
lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betez,
gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumeneko Sailburuordetzari”.

3. BIPBren aldaketaren ingurumen eraginaren deskribapena

Sustatzaileak emandako dokumentazioan, eta, zehazki, ingurumen agiri estrategikoan adierazi den bezala, BIPBren aldaketaren izaera kontuan hartuta, ez da espero ingurumenaren gainean eragin esanguratsurik sortuko denik, epigrafe honetan aztertutako kasu batzuetan salbu.

Ingurumen Agiri Estrategikoaren arabera, ingurumenaren gaineko eragin esanguratsu bakarrak UE6 eta UE7 jarduerak sortutakoak lirateke (“Oinezkoentzako bidea eraikitzea ortuen inguruan” eta “Kanpoko aparkalekua - autobus geltokia”). Zehazki, lurren mugimenduei, kutsadura atmosferikoari, zaratari eta baliabideen kontsumoari buruz ariko ginateke. Hala ere, esangura ertaina duten beste eragin batzuk daudela uste da, eta beraz, kontuan hartu behar dira.

BIPB aldatzearen ondorioz, hainbat etxebizitza garatu eta egiteko aukera sortzen da. Horrek aldaketak eragingo lituzke ur horniduraren eta saneamenduaren gaineko eskarian, eta, beraz, gai hidraulikoetan eskumena duen organoak horren gainean ezartzen duena bete beharko litzateke, URA – Uraren Euskal Agentziak kontsulten fasean adierazi duenaren arabera.

Bestalde, kontuan hartuta BIPBren aldaketaren jarduera eremuak Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoko ustezko zona arkeologikoari eragiten diola (1996ko apirilaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 71. zenbakia), bai eta ustezko zona arkeologikoan sartutako Alto del Castillo inguruari ere, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera, eremu horretan eragina duen edozein obra edo lur mugimendu egiteko, alde aurretik txosten teknikoa igorri behar izango du Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak.

Azkenik, BIPBren aldaketa hau onartzearen ondorioz gauzatu daitezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza obretan, ahalik eta murriztenak izan beharko dira basoko faunaren gaineko eraginak, batez ere kiropteroen eta gau harraparien gainekoak. Izan ere, animalia horiek jarduera eremu honetako eraikinen baten barrualdean izan dezakete bizilekua. Gainera, lanen ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litzakeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu behar dira.

4. Ondorioa. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen Agiri Estrategikoko 10. atalean (Ingurumenaren gaineko ondore negatiboak prebenitu, murriztu eta zuzentzeko neurriak) aurreikusitako ingurumen integrazioko neurriez gain, zeintzuk orokorrean egokitzen jo diren (batez ere berdeguneetan landaretza autoktonoa erabiltzea), honako baldintza hauek ezarri dira “Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa” deritzan hirigintza agiriaren araudian ere sartzeko:

– Eraikinak birmoldatzean kiropteroak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– “Zura intsektizidez tratatzean, organokloratuak edo organofosforatuak dituzten produktuen ordez, erraz biodegradatzen diren produktuak erabili beharko dira.

– Herrigune historikoko eraikinak birmoldatzean, kiropteroen dagoen zehatz-mehatz aztertuko da. Kiropteroen hazlekurik aurkituz gero, hazkuntza alditik (ekaina, uztaila eta abuztua) at teilaberritu eta eraberritu beharko dira eraikinak, eta tratamendu intsektizidak apiriletik irailera arte doan alditik kanpo (bi hilabete horiek barne) eman beharko dira”.

– Eraikinak birmoldatzean gau harrapariak ez kaltetzeko hartu beharreko neurriak:

– Erdigune historikoko eraikinak birmoldatzean, zehatz-mehatz egiaztatuko da gau hegazi harraparien kokalekuak edo habiak ote dauden. Era horretako espezierik dagoela konturatu gero (egragropiloak edo bestelako hondakinak ikusiz gero, gauez entzun zaielako bertan direla ziur egonez gero etab.), Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko zaio, kalterik ez eragiteko neurri egokienak adosteko (lanen kronograma egokitzea edo beste)“.

– Kontuan hartuta BIPBren aldaketaren jarduera eremuak Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoko ustezko zona arkeologikoari eragiten diola (1996ko apirilaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 71. zenbakia), bai eta ustezko zona arkeologikoan sartutako Alto del Castillo inguruari ere, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera, eremu horretan eragina duen edozein obra edo lur mugimendu egiteko, aldez aurretik txosten teknikoa igorri behar izango du Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak.

– BIPBren aldaketa garatzeko jarduerak eragin litzaketan eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegia edo zabortegietara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Santikurutze Kanpezuko herrigune historikoaren Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren Aldaketaren" ingurumen txosten estrategikoa ezartzea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA